

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Pasa den zereal-kanpainaren uztan 871.000 tona bildu dira

Horrela adierazi zuten 2017/18 neguko laborantza estentsiboen balantzearen inguruan asteazkenean Erriberrin egindako jardunaldian

Osteguna, 2018.eko abuztuak 9

Pasa den zereal-kanpainaren uztan 871.000 tona bildu dira, 2017/18 neguko laborantza estentsiboen balantzearen inguruan egindako jardunaldian eskainitako behin-behineko lehen datuen arabera. Datu horiei esker, kanpaina oro har "oso ona" izan dela esan daiteke, eskualdeen artean alde handiak egon arren.



Elizalde kontseilaria, hitzaldiaren une batean.

Saioa asteazken honetan egin zen Erriberriko Evena eraikinean, [INTIA](#) (Nekazaritzako Elikagaien Teknologien eta Azpiegituren Nafarroako Institutua) enpresa publikoak antolatuta, eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria den Isabel Elizalde inauguratu zuen.

Lortutako emaitzak, kooperatiben azken datuak jasotzeko badaude ere, iazko kanpainaren antzekoak dira, eta duela bi urte baino baxuagoak (-%7,5), "orduak kanpaina bikaina izan baitzen", 2016an Nafarroako ekoizpen-errekorra hautsi zelako, 942.000 tonarekin. Azken hiru kanpaina hauetako produkzioa produkzio historiko handienetakoa da.

Laborantza-moten arabera, zerealak dira labore garrantzitsuenak, gariak uztaren ia erdia hartzen du (%48,6), eta, ondoren, garagarra (%42,5) eta oloa (%6) daude. Gainerakoak ordezeko laboreak dira; hala nola, koltza (%1,7) eta leguminosoak (ilar proteaginosoa eta babak), soilik %0,8.

Eskualdeak aintzat hartuta, gariaren zein garagarraren kasuan, errendimenduak handiagoak dira hegoaldeko iparraldera, ohikoa den moduan, baina historikoekin alderatuta, uzta bikaina izan da hegoaldeko zona idorretan, oso ona Erdialdean eta soilik arrunta behe-mendian, prezipitazio gehiegi izateagatik.

2017/18 kanpainako neguko labore estentsiboetarako **ereindako azalera** 194.625 ha-koa izan da, 1000. ha baino zertxobait gehiago murriztua, lugorritako azalera gehiago uzteagatik.

Kudeatzaileei, batzordekideei eta INTIAko kooperatiba bazkideetako

espezialistei zuzendutako saioan zehar, adierazi zuten gehien garagarra ereiten dela (84.000 ha) eta horren atzetik garia (78.000 ha). Aurten, ordea, euri ugari egin du, eta horrek uztak baldintzatu ditu; izan ere, gariaren ekoizpenak oso aldakorak izan dira partzelen eta zonen arabera, eta prezipitazioen bidezko istiltzeen ondorioz ekoizpenak asko jaitsi dira, osasun-arazo garrantzitsuak eta belar txarrak direla-eta.

Halaber, jardunaldian aurten izandako gaixotasunei buruz aritu ziren eta fungiziden aplikazioak nola eragin duen errendimenduetan aztertu zuten, garagarrari nahiz gariari dagokienean. INTIAk fungizida ezberdinak aplikatuta eta estrategia ezberdinak erabilia egindako entseguetan lortutako emaitzak aurkeztu zituzten, hori guztia tratamendu-kopuruaren eta laboreen egoera fenologikoen arabera.

INTIAko teknikariek zerealen, leguminosen eta oleaginosoen aldaerekin egindako entseguen emaitzen laburpena azaldu zuten baita ere, zehazki, garagarra, garia, koltza, oloa, ilarrak eta babarenak. Guztira, 4.000 mikropartzelaren gainean egin dituzte entseguak eta uzta-biltzeak, lehorreko heze, lehorreko eta sail ureztatuen artean, Tafalla inguruan.

Horrez gain, jardunaldian [Europako Recap proiektua](#) aurkeztu zuten; bertan, INTIAk lan egiten du Orvalaiz Kooperatibarekin eta bost herrialdeetako beste hamar erakunderekin batera, Informazio Geografikoko Sistemetan (SIG) eta satellite bidezko irudien tratamenduan oinarritutako zerbitzuak garatzeko, Nekazaritza Politika Erkidearen (NPE) baldintzatasunaren kudeaketa nekazaritza-ustiapenetan babesteko erreminta gisa.

NPEren erreforma

Hain zuzen ere, Elizalde bere hitzaldiaren zati bat NPEri eskaini zion, eta 2020 ondoren NPEren gainean egingo den erreformaren aurrean jarrera komuna hartzeko Foru Gobernua zer-nolako urratsak ematen ari den azaldu zuen. Kontseilariak ondorengo nabarmendu nahi izan zuen: "erreforma honetan, Nafarroak asko jokatuko du, gure nekazaritza, gure lurraldea, baita erosketa-saskia ere, eta sektorearen gaitetzea".

Horretarako, Departamentua NPEren inaktuaren analisia egiten ari da Foru Erkidegoan, eta hiru aplikazio-denboraldi aztertzen ditu (1997, 2011 eta 2016). "Azterketak egiaztatzen du inoiz baino ezinbestekoagoa dela NPEren benetako erreforma egitea; halaber, aurreko erreformetan aurreikusitako helburuak ez direla lortu ere egiaztatzen du", adierazi zuen Elizalde.

Pasa den maiatzaren 24an, Nekazaritzako Kontseiluaren esparruan aurkeztutako azterketan, nekazaritza-politiken orientabidea aldatu beharra ikusi da. NPEren hartzaileen batez besteko adina igotzen ari da urtetik urtera, eta 2016an 63,7 urtekoa izan zen. Ildo horretan, Elizalde ondorengo azpimarratu zuen: "argi dago aplikatzeko eredu hori ez dela gai izan sektoreak aurrean duen erronkarik handienetatiko bati irtenbidea bilatzeko; hots, belaunaldi-erreleborik eza".

Azterketan jasotako beste ondorio batzuen artean, kontseilariak nabarmendu zuen nagusiki nekazariak eta lehentasunezko ustiapenek ez dutela batez besteko adin hain aurreraturik, asko 50 eta 64 urte artekoak izan arren. 2016. urtean, hartzaileen %64a gizonezkoak izan ziren, %28a emakumezkoak eta %8a sozietateak. Baina zenbateko osoaren %31 sozietateei dagokie, %56 gizonei eta %13 emakumei. Hori dela-eta, Elizalde honako hau adierazi zuen: "analisi honetako emaitzek eta ondorioek berretsi digute NPEren benetako erreforma bultzatu beharra daogela".